
AGURAIN


HIRIGINTZA PLANGINTZA

Agurain (Salvatierra gazteleraz) Arabako udalerri bat da, Lautadako eskualdean kokatuta, Vitoria-Gasteizeko ekialdetik 26 kilometroa. 37,7 km2 ditu, 5.000 biztanlek okupatuta. Bere gune nagusiaz gain, bere udal mugartean, beste hirigune batzuk ditu (herriak), besteak beste: Arrangua, Arrizala, Egileor eta Opakua. Enklabe bat dauka (beste udalerri batek edo batzuek okupatutako udal mugartearen zatia), iparraldean, 1,7 km2-rekin.


Hirigintza Antolamenduko Plan Orokor bat udal eremuko dokumentu araudi-emailea da. Bertan "hiriko proiektu" bat biltzen da eta hura oinarri hartu beharko da jarduera fisikoak zein juridikoak garatzerakoan. Oso dokumentu konplexuak dira, oso izapide konplexuekin.

Gutxienez, Plan Orokor hauek udalerriko hiri lurzorua, urbanizagarria eta urbanizatu ezin daitekeena sailkatu behar du, eta baita horien erabilerak zehaztu ere, hala dagokionean. Horrez gain, beste dokumentutan araupetuta dauden alderdiak ere bildu behar ditu, nahiz eta askotan horiek udalen menpe ez egon. Azken horiek "udalerritik gaindikoak" izango dira, esate baterako, Kultura Ondarekoak, kostaldeekin lotutako araudia, ondare naturalaren babesetik eratorritakoak, eta abar (horiek Gobernu Zentralaren, Autonomia Erkidegoaren edo Foru Aldundien mendekoak izan daitezke). Eta are gehiago; Plan orokorrek jarraitu behar






Udalplan guneko xehetasuna Agurain udalerriko gune nagusiaren lurralde eremurako. Udal mugartea + Udalplan (Ekonomia jardueretako lurzorua + Ortoargazkia 2015 + Sistema Orokorrak + Lurzoru ez Urbanizagarria + Gainjarritako baldintzatzaileak). Iturria: Udalplan. Euskko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 549954 m // Y: 4744075 m.



Udal mugartea + Udalplan (Ekonomia jardueretako lurzorua + Sistema Orokorrak + Lurzoru ez Urbanizagarria + Gainjarritako baldintzatzaileak). Iturria: Udalplan. Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi. UTM 30N ETRS89 // X: 549954 m // Y: 4744075 m. Ikusten da espazializazioa etengabekoa da, mugako udalerrien informazio osoa barne hartzen baitu eta zoom negatibo bat eginez gero, udalerri guztiak batera ikusi ahal zirelako.

dituzte Lurralde Antolamenduko Arauek ezarritako zehaztapenak (autonomia esparrukoak), Lurralde Plan Partzialak (eremu funtzionaleko esparrukoak, hau da, eskualdekoak) eta Lurralde Plan Sektorialak (Autonomia Erkidegoko esparrukoak, gai zehatz batean murgilduta).


Legeak aginduta, hirigintza planeamenduko tresna orokorrak osatzen dituzten dokumentu guztiak publikoak dira eta hiritarrek horiek kontsultatzeko eskubidea dute. Gaur egun, erosoena udaletxe bakoitzaren web orrien bidez egitea da. Hala ere, ikuspegi orokorra, homogeneoa eta eskuragarria izateko helburuarekin, Udalplan. GeoEuskadi sortu da. Horrek Udalplan guneko informazioa eskuragarri jartzen du, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri guztien hirigintza planeamendu orokorraren zati “nagusiari” buruzko informazio eguneratua. Informazioa eten gabe eskaintzen du.



Finkatutako hiri lurzorua: eraikitako partzelak eta euren bidegurutzetan gera daitezkeen orubeak hartzen ditu barne. Jabeak zuzenean eraikitzeko eskubidea dauka, lizentzia lortu ondoren.

Agurain Hirigintza Esku-hartzeko hamabi Areetan zatituta dago. Horietako batzuk, besteak beste: AIU.1 Erdi Arok Gune Historikoa AIU.5 San Jorje.AIU. 14 : Madura eta AIU.15 Ekialdeko zabalgunea.

Irudian, nolakoa den ikusteko helburuarekin, Agurainekofinkatutako hiri lurzoruaren zati bat adierazi da eta zenbait UIU identifikazioa gehitu zaie, 2015eko Ortoargazkia moztuz. Iturria Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.



Finkatu gabeko hiri lurzorua: hura urbanizazioa guztiz osatzeko hainbat esku-hartze behar dituzten edo hiria berritzeko jarduera aurreikusi diren hiriko aldeek osatzen dute. Jabeak eraiki ahal izango d bakarrik zenbait betebehar betetzen duenean; besteak beste, urbanizatzea (aurreikusitako kaleak, plazak, parkeak, eta abar eraikitzea) eta beharrezkoa litzatekeen plangintza izapidetzea (adibidez, Barne Erreformako Plan Bereziak).

Irudian, nolakoa den ikusi ahal izateko, adierazi da Aguraineko finkatu gabeko hiri lurzoruaren zati bat. AIUetan ere zatituta dago. 2015eko ortoargazkia moztu da. Iturria Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.



Sektoretan antolatutako lurzoru urbanizagarria. Eraldatu daitekeena da. Bere jarduera eremua mugatuta dauka eta hari buruzko Antolamendu Plan Partzial bat idatziko da.
Ikusten da Agurainen nekazaritza erabilerako partzelak daudela, eraikuntzarik gabe, baina urbanizatutako lurzorutik oso gertu.

Sektoretan antolatutako Lurzoru Urbanizagarriaren zati bat adierazteko, 2015eko ortoargazkia markatu da. Iturria Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.



Sektoretan antolatu gabeko lurzoru urbanizagarria. Sektoretan antolatu gabeko lurzoru urbanizagarritzat joko dira, urbanizagarritzat sailkatu arren, Plan Orokorrak, edo hala dagokionean, sektoretan banatzeko planak antolatutako inolako sektoretan ez dauden lurraldeak.

Sektoretan antolatu gabeko lurzoru urbanizagarriaren zati bat adierazteko, 2015eko Ortoargazkia gorriz markatu da .Iturria Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.